

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILEKO ADMINISTRAZIO ZERBITZUA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko martxoaren 13an eta eta 2020ko ekainaren 5ean hartutako erabakien laburpena: Vitoria-Gasteizko udalerrian ostalaritza-enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdia onestea. 2020. urtea

BDNS(Identif.): 510518

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke <http://www.pap.minhap.gob.es/bdns-trans/index>, baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere <http://www.vitoria-gasteiz.org>.

Lehena. Onuradunak

Vitoria-Gasteizko negozio-lokaletan diruz lagun daitezkeen inbertsio-proiektuak gauzatu dituzten pertsona fisiko eta juridikoak, baldintza hauek betetzen dituztelarik: gehienez 50 langile izatea, urteko negozio-bolumenak edo urteko balantze orokorrak hamar milioi euro ez gainditzea, eta aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25etik gorako partaidetza ez izatea bertan, eta lokal horietan Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren 671, 672, 673, 676 eta 677.9 epigrafeetako merkataritza-jardueraren bat bideratzea elikadura-zerbitzua, jatetxe, kafetegi eta tabernetan, edo txokolategi, izozki-denda eta hortxata-dendetan, eta elikagaietako beste zerbitzu batzuk, asteburuetako gaueko ostalaritza eta kolektiboentzako catering zerbitzuak salbu, edo 681, 682, 683 y 684 (hotel eta moteletako ostatu-zerbitzua, hotel eta pentsioetako ostatu-zerbitzua, fonda eta apopilo-etxeetako ostatu-zerbitzua eta hotel eta apartamentuetako ostatu zerbitzua.

Bigarrena. Xedea

Vitoria-Gasteizko udalerrian ostalaritza sektoreko ekonomia-jarduera sustatzea, 2019ko ekainaren 7tik 2020ko uztailaren 17ra bitartean arlo hauetan egindako inbertsioak diruz lagunduta: ostalaritza establezimenduak eraberritzeko obrak eta lokalaren ekipamendua.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

Hirugarrena. Oinarriak

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zenbakia), eta 2020ko martxoaren 13an, berriz, 2020an Vitoria-Gasteizko udalerrian ostalaritza alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko deialdiaren berariazko oinarriak. Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza deialdi honek 125.000,00 euroko zuzkidura du, 2020ako onetsitako udal aurrekontuko 0822.4314.489.64 "Denda txikientzako laguntzak" partidaren kontura. Proiektuaren balorazioarekin bat, II. eranskinean adierazten diren zonetan Erdi Aroko hirigunea, Koroatzea,

Angloa, Pilar, Zabalgunea eta Lovaina, metro koadroko laguntza 120,00 eurokoa izango da, gehienez 10.000,00 euro arte. Gainerako zonetan, metro koadroko 80,00 euro, gehienez 7.000,00 euro arte.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2020ko uztailaren 1etik uztailaren 17ra.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 8a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren
eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*